



Iritziak

Guillem Agullóren hazia



DAVID BOU
LA DIRECTA-KO
KAZETARIA

1993ko apirilaren 11. Montanejos; Valentziako Erkidegoko herria. Guillem Agulló i Salvador bihotzean saskatuta hil zuten. Opor egun batzuek lagunekin gozaten zegoen, bost neonazik identifikatu zuten arte. Bere bila joan ziren, hil egin zuten eta agur faxista eginez lurrean utzi. Bere jakan arrazakeriaren aurkako intsigniak zeramatzan. Antifaxista zen, Maulets erakunde independentistako militantea eta SHARP kolektiboko kidea. 18 urte besterik ez zituen, bizitza osoa borrokarako.

Espainiako Justiziak -gure garaiko oximoron bereziak- kolpe hilgarria jotzeaz baino ez zuen akusatua kondenatu. Gainerakoak absolutu zituen. Pedro Cuevas Silvestre borrero aitortuari hamasei urteko kartzela zigorra ezarri zioten. Lau bete zituen, eta aske geratu zen. Krimenaren motibazio ideologikoak gazteen arteko borroka faltsu batera murriztu zituzten, sare mediatiko eta politiko baten laguntza ordainezinarenkin. Horra hor!

Hamabi urte geroago, kondenatuaren zigorgabetasuna finkatuta zegoenean, Guardia Zibilak Panzer Operazioa deiturikoa burutu zuen, armategi bat zeukan talde neonazi baten aurka; ezkerreko militanteen, migratzaileen eta homosexualen aurkako ehizaldiak egiten zituen. Atxilotutako 27 ultretatik 18 akusatuena aulkian eseri ziren, eta guztiak absolutu zituzten. Horien artean zegoen, berriz ere, Pedro Cuevas.

“Orain eta hemen” borroka jarraitzen du. Gaur egun, inoiz alde egin ez duen faxismoa konbatera itzultzen ari da, baina ez gara geldirik egongo, ez horixe!

Auzitegi Gorenak epaia berretsi zuen. Poliziaren ikerketa-aldian akusatuaren telefonoak kontrolatuta egon izanak komunikatzeko duten sekretu-eskubidea urratu ziela iritzi zuten epaileek. Herri akusazioa, bost elkartek eratua, 43.000 euro ordaintzera behartu zuten prozesu judizialeen kostuengatik. Aurreko urteetan ehunka eraso eta hogeitatu atentatu izan ziren ezkerreko erakundeekin egotzen aurka: giza eskubidearen aldekoak, meskitak... Artean, Alderdi Popularraren nagusitasun instituzionalak isiltasuna eta ahanztura bermatu zituen.

Hala ere, batzuek ez zuten amore eman. Carme Salvadorrek, Guillem i Betlém Agullók, Burjassot herriko gaztearen gurasoek eta arrebak, milaka kilometro egin dituzte haren memoria aldarrikatzeko. Ez dituzte beldurtu, ez beren herrian egindako pintada mehatxagarriek, ez “Guillem, izorra hadi!”

kantuek eskuin muturraren deialdi guztietan. Haiei esker, Katalan Herrietako belaunaldi antifaxista oso bat ez da inoiz umezurtz sentitu. Erailketak eragindako gorrotoa energia bihurtu duen pertsonetako bakoitzean bizi da Guillem, diskriminaziorik gabeko gizarte bat eraikitzeko.

“Orain eta hemen” borroka jarraitzen du. Hain zuzen ere, horixe da 40 egunetan 134.786 euro bildu dituen mikro-mezenasgo kanpainaren izena, haren ondarea ez dadin inoiz desagertu. 2.498 lagunek euren hondar alea jarri dute haren historia pantaila handira eramango duen film luzea gauzatzeko. Liburu batek, hitzaldi ziklo batek, omeneko bi kontzertuk eta *crimenesdeodio.info* dokumental proiektua gaurkotu eta osatuko dute, kontzientziak eraikitako “artefaktua” astintzeko. Gaur egun, inoiz alde egin ez duen faxismoa konbatera itzultzen ari da, baina ez gara geldirik egongo, ez horixe!

Arrebak duela gutxi egindako elkarriketa batean gogorarazi zigun zergatik jarraitzen dugun hemen: “Haiek izorratzen ditu gure ekimenak, oraindik ere modu honetan gogoratzen dugulako. Guillem bizirik dago, oroimenean dagoelako. Hil nahi izan zuten, eta ez zekiten hazia zela”.

Betlém, ziur egon zaitezketek: Guillemen sustraiak sakonak dira, oroitzapen suntsiezina. Ez dugu ahazten, ez dugu barkatzen. ●